




ETXEBIZITZA TURISTIKOETARAKO INGURUMEN JARDUNBIDE EGOKIAK

Enpresa kudeatzaileak

2022

Proiektuaren zuzendaritza:

DONOSTIAKO UDALA
Osasun eta Ingurumen Zuzendaritza
Donostia San Sebastián Turismoa

Laguntza teknikoa:

ISLADAK AHOLKULARITZA, Koop.Elk.Txikia

Diruz lagundua:



Laguntzailea:



aparture

Euskadiko Etxebizitza Turistikoen Elkartea
Asociación de Viviendas de Uso Turístico de Euskadi

APARTAMENTU ETA ETXEBIZITZA TURISTIKOETAKO ENPRESA KUDEATZAILEEI ZUZENDUTAKO JARDUNBIDE EGOKIAK



KONTSUMO ARDURATSUA

Kontsumo arduratsu bat egiteko jardunbide egokiak

- Tokikoak eta jasagarriak diren elikagaiak erosi
- Ingurumena errespetatzen duten garbiketarako produktuak eta produktu higienikoak erabili
- Ehun motak jasagarriak erabili



HONDAKINEN PREBENTZIOA

Hondakinen prebentzioarekin erlazionatutako jardunbide egokiak

- Amenitien eskaintza murriztu
- Enbalatze gutxien duten produktuak, ontzi itzulgarrietan, edukiera handiko ontzietan eta/edo erraz birzikla daitezkeen ontzietan (eta bilgarrietan) eskuratzeari lehentasuna eman
- Erabilera bakarreko mahai-zapien eta ezpainzapien erabilera ekidin
- Ehunen, tresna elektriko eta elektronikoen, altzairuen eta abarren konponketa eta berrerabilera sustatu



HONDAKINEN KUDEAKETA

Hondakinen kudeaketa egokiarekin erlazionatutako jardunbide egokiak

- Hondakin organikoetarako edukiontzia erabili ahal izateko txartela eskuratu
- Bezeroek hondakinak bereizteko behar dituzten ontziak izan
- Bezeroei informazioa eman hondakinak bereizteko modu egokiari buruz
- Hondakinak kudeatzeko moduei buruzko prestakuntza eman langileei



KONTSUMO ARDURATSUA

Kontsumo arduratsu bat egiteko jardunbide egokiak

✓ Tokikoak eta jasagarriak diren elikagaiak erosi

- Elikagairik ematen bada, lehentasuna eman tokiko ekoizleen produktuei eta, ahal bada, ekoizpen ekologikoaren produktuei.
- Gehiegizko ontzia duten produktuak ez erosi.
- Segurtasun-, kontserbazio- edo babes arrazoiengatik ontziratuta egon behar diren produktuak erostekotan, berrerabili, birziklatu edo berreskuratu daitezkeen material bilgarriak dituztenak lehenetsi, adibidez berrerabili daitezkeen kaxa edo erretiluak edo konpostagarriak diren ontziak, edo, are gehiago, birziklatutako materialarekin egindakoak.

Tokiko produktuak eta produktu ekologikoak bereizteko ondorengo zigiluak izan daitezke kontutan:

Tokiko produktuak: nahiko gertuan ekoitzi eta kontsumitzen diren produktuak. Honako zigilu hauek dituzten elikagaien ekoizpen, eraldatze eta elaborazioa leku geografiko jakin bati dagokio (1151/2012 (EE) Araudia): Jatorri Izendapen Babestua (JIB) eta Adierazpen Geografiko Babestua (AGB). Horrez gain, beste hauek ere jatorri geografikoa kontutan hartzen dute beste hainbat irizpideez gain: Eusko Label, Euskal Baserri eta Euskadiko Kantauriko Hegaluzzea eta Antxoa.



Produktu ekologikoak (834/2007 (EE) Araudia): Lurzoruen, ekosistemen eta pertsonen osasuna mantentzen eta hobetzen duen produkzio-sistema. Ziurtagiri europarra zein Euskadi mailakoa (tokiko produktua) izan daiteke.



✓ Ingurumena errespetatzen duten garbiketarako produktuak eta produktu higienikoak erabili (xaboiak, produktu kimikoak, zabor-poltsak, komuneko papera, etab.)

- Egunerokotasunean erabiltzen diren garbiketarako eta higienarako produktuetan ingurumen etiketa dutenak aukeratu.
- Produktu desinfektatzaileak ezinbestekoak direnean soilik erabili.
- Aire-gozagarriak, pilulak edo substantzia lurrinduak eta spray bidezko produktuak ahalik eta gehien mugatu.
- Produktu kimiko kontzentratuak eta dosifikazio sistema dutenak erabili, horrela murriztu egiten da erabilitako ontzien kopurua eta produktu horien garraioak eragindako inpaktua.
- Mikrofibrazko trapuak eta mopak/zoru garbigailuak erabili
- Erosi paper birziklatuz egindako eta klororik gabeko komuneko papera, eskuak lehortzeko papera edo beste osasun-paper batzuk
- Material birziklatuz egindako plastikozko zabor-poltsak edo poltsa konpostagarriak erabili (edukiontzi horiarentzat izan ezik).
- Gogoratu behar da sortzen diren ontzien hondakinak behar bezala kudeatu behar direla, arriskutsuak diren hondakinak ez direnez bereiztuz.

Ekoetiketei esker, ingurumen-inpaktu txikiena duten garbiketa- eta higiene-produktuak identifika ditzakegu. Garbiketarako produktuen ziurtagiri batzuk hauek dira:



Etiketa Ekologiko
Europarra



Aingeru Urdina



Beltxarga Zuria

Garbiketa zerbitzuak	x		x
Garbiketa produktuak	x	x	x
Eskuak garbitzeko xaboiak	x	x	x
Komuneko papera eta betelako paper sanitarioak	x	x	x
Zabor-poltsak		x	

✓ Ehun mota jasangarriak erabili

- Erosketa beharretara egokitu.
- Zuntz birziklatuetan oinarrituta fabrikatutako ehun-produktuak erosi: adibidez, plastikozko hondakinetatik eratorritako poliesterra eta/edo industria osteko edo kontsumo osteko kotoi birziklatuan fabrikatutakoak.
- Zuntz naturaletan oinarrituta egindako ehun-produktuak erosi, hala nola kotoia edo liho ekologikoa, biologikoa eta organikoa, intsektiziden, pestiziden eta ongarrien erabilera saihesten dutenak.
- Lan-baldintza egokietan eta bidezkoetan fabrikatutako ehun-produktuak erosi.
- Hurbileko eremuetan fabrikatutako ehun-produktuak erosi.



Ehun jasangarrien ziurtagiriek modu jasangarrian eta etikoan ekoitzita dauden ehunak identifikatzeko aukera ematen digute. Ehungintza-produktuen ziurtagiri batzuk honako hauek dira: Ecolabel, OEKOTEX, GOTS, OCS...



HONDAKINEN PREBENTZIOA

Hondakinen prebentzioarekin erlazionatutako jardunbide egokiak

✓ Amenitien eskaintza murriztu

Higiene pertsonaleko produktuekin egindako amenitie-kitak eskainiz gero, bilatu ingurumena gehien errespetatzen duten alternatibak:


- Xanpuak eta gelak tamaina handiko ontzietan edo banagailu betegarrietan jarri
- Banakako xaboi-pastillaren ordezt gela erabili, banagailu betegarrietan
- Norberaren higienarako produktuak, hala nola hortzetako eskuilak, orrazia eta abar, plastikozkoak baino jasangarriagoak diren materialez egindakoa izatea ziurtatu, adibidez zurezkoak, banbuarekin egindakoa, ...
- Etiketa ekologikoa duten higiene-produktuak erabili
- Produktuak ontzirik gabe edo ahalik eta ontzi gutxienarekin eman. Ontziratuta badaude, ontziak %100 konpostagarria izatea saiatu.



✓ Enbalatze gutxien duten produktuak, ontzi itzulgarrietan, edukiera handiko ontzietan eta/edo erraz birzikla daitezkeen ontzietan (eta bilgarrietan) eskuratzeari lehentasuna eman

Elikadura- eta ongi-etorri-produktu batzuk monodosian eman daitezke, eta ostaturako erositako ia kontsumigarri guztiak (adibidez, garbiketako produktuak) ontziratuta ematen dira. Ontzi eta bilgarri horiek minimizatzeke aukerak eta ideia onak:

- Ontzirik edo enbalajerik gabe (soltean) edo ontzi eta enbalaje gutxiagorekin eros daitezkeen kontsumigarriak identifikatu.
- Ahal den neurrian, produktuak hurbileko dendetan erosi. Errazagoa da enbalajea murriztea, garraio luzea saihestuz gero.
- Itzuli beharreko eta berrerabili daitezkeen ontziak lehenetsi.
- Birziklagarritasun-potentzial handiena duten ontziak lehenetsi; kartoia eta papera eta beira plastikoaren ordezt. Adibidez, edalontziak bildu behar badira, paperarekin bildu, plastikoarekin bildu beharrean.
- Fabrikazioan material birziklatua duten ontziak eta bilgarriak lehenetsi. Ontziak edo enbalajeak plastikoak badu, plastiko halogenaturik gabea izan dadila, PVCa bezala.



Gogoratu gero eta enpresa gehiagok sartzen dutela ontziari buruzko informazioa ontzian bertan.



Ontzi horretako materiala birziklagarria dela adierazten du



Ontzi horretako materiala birziklatutako materialaren % X del adierazten du



Ecoembesen "BIRZIKLATU" sinboloa, ontzien kudeaketa errazten duena

Informazio gehiagorako: Ontzi eta enbalajeetarako ingurumen-etiketen gida. Ihobe eta Ecoembes



✓ Erabilera bakarreko mahai-zapien eta ezpainzapien erabilera ekidin

- Mahai-zapi eta ezpainzapi berrerabilgarriak erabili, ahal bada, produktu naturalez egindakoak, hala nola kotoiaz, kotoi birziklatuaz edo lihoaz. Plastikozkoak badira, konposatu halogenaturik gabeak izan daitezzen (saihestu PVCa).
- Erabili eta botatzeko mahai-zapiak eta ezpainzapiak erabiltzea aukeratzen bada, erosketan ingurumen-irizpideak sartu:
 - o % 100 birziklatutako materialekin egindako paperean.
 - o Edo zelulosa-zuntzez egindako papera bada, horiek basogintza jasangarritik etortzea. (PEFC edo FSC ziurtagiriak).
 - o % 100 konpostagarriak izatea.



✓ Ehunen, tresna elektriko eta elektronikoen, altzairuen eta abarren konponketa eta berrerabilera sustatu

Konpontzea eta berrerabiltzea hondakinak sortzea saihesteko bi modu dira. Nola?

- Bota egin aurretik konpontzen saiatu.
- Produktuak berrerabiltzeko eraldatu; adibidez, erretiratutako izarak garbitegiko arroparako poltsa, garbiketa-trapu eta abar gisa eraldatu daitezke.
- Egoera onean dauden eta berrerabil daitezkeen altzariak, tresna elektrikoak eta elektronikoak (etxetresna elektrikoak, ekipo informatikoak, telebistak, etab.) eta ehunak bigarren eskuko merkatuetan sal daitezke, hala nola Donostiatruk edo merkatu birtualetan (Donostiatruk online, merka2sanmarkoak...).
- Dohain ere eskain daitezke nolotiro.org bezalako plataformetan edo, adibidez, Emaus Fundaziora deituz produktu horiek berrerabiltzeko.





HONDAKINEN KUDEAKETA

Hondakinen kudeaketa egokiarekin erlazionatutako jardunbide egokiak

✓ Hondakin organikoetarako edukiontzia erabili ahal izateko txartela eskuratu

Hirian, frakzio organikorako edukiontzia (kolore marroia) borondatez erabiltzen dira. Establezimendu turistikoetan sortutako hondakin organikoak kaleko edukiontzi marroi horietan botatzeko, Joko Garbiaren txartela behar da.

Etxebizitza turistikoetarako Joko Garbia Txartelaren eskaera, etxebizitza turistikoko bezeroei hondakin organikoetarako edukiontzia erabiltzeko aukera emango diena, udalaren webgunearen bidez egin daiteke, etxebizitza turistikoa dela adieraziz.



✓ Bezeroek hondakinak bereizteko behar dituzten ontziak izan

Etxebizitza turistiko batean sortzen diren frakzio ohikoenak eta gaika bildu behar direnak, honako hauek dira:



1. Beira
2. Ontziak
3. Papera eta kartoia
4. Hondakin organikoak
5. Etxeko olioak
6. Errefuxa

Zazpigarren ontzi edo espazio bat ere jar daiteke, honako hondakin hauek nahastuta uzteko, baina garbiketako langileek bereizi egin beharko dute dagokien leura eramateko:

7. Pilak, ehunak, etxeko hondakin arriskutsuak, sendagaiak, hondakin elektriko eta elektronikoak.

✓ Bezeroei informazioa eman Hondakinak bereizteko modu egokiari buruz

Kontuan izan behar da munduko leku desberdinetan gaika biltzen diren frakzioak desberdinak direla. Horregatik, oso garrantzitsua da bezeroei jakinaraztea edukiontzi bakoitzean zein frakziok joan behar duen.

Gomendagarria da informazio hori idatziz jasotzea bezeroei ematen zaien dokumentazioan, ongietorri-mezuetan.

Eta baita modu grafikoan ere, ontzietan jarritako pegatinen bidez,



eta edukiontzien eremuan kartelak jarritz.



✓ Hondakinak kudeatzeko moduei buruzko prestakuntza eman langileei

Jardunbide egoki honen helburua da etxebizitzan bereizitako zatiak dagozkien edukiontzietan uztea. Kasu batzuetan langileak dira (garbiketako edo mantentze-lanetako langileak) etxebizitzako hondakinak hiri-edukiontzietara eramaten dituztenak; horregatik, garrantzitsua da hondakinen kudeaketan trebatuta egotea.

Edukiontzi bakoitzean eta San Markoseko furgonetan zer utzi behar den jakiteko informazioa Donostiako Udalaren Ingurumenaren webgunean kontsulta daiteke.

Donostian honako hondakin hauek gaika biltzeko edukiontziak daude:

- Beira: edukiontzi berdea.
- Ontziak: edukiontzi horia.
- Papera eta kartoia: edukiontzi urdina.
- Hondakin organikoak: edukiontzi marroia.
- Olia: edukiontzi laranja.
- Pilak: pilentzako edukiontzia.
- Ehunak: edukiontzi zuria.

Gainera, honako hondakin hauek bereizita utzi behar dira:

- Altzariak eta tamaina handiko hondakinak.
- Etxeko hondakin arriskutsuak: San Markoren furgonetan edo Garbigunean.
- Botikak: farmazietako SIGRE puntuetan.
- Hondakin elektrikoak eta elektronikoak.
- Inausketetako hondarrak eta belarra: edukiontzi marroian edo Garbigunean.



